

# 7ER

BIZKAITARRAI  
BIZKAIERAZ  
27<sup>n.</sup> ZENBAKIA  
ABENDUA  
-1979-



- Pasiotarren 100'garren urtean
- IKAS-AMA ABES-BATZA
- AITA BARTUREN ZUZENDARI

---

***Olako eginbearrak artzera,  
oitu zaite.  
Urte bi igaro baiño len,  
lau laguntzabarri***

Gauzetarako ikuspegi barria, artu-emonak izateko era barria eta geroak gaur eskatzen dauan laguntza-moltzo osotua-  
goa eskintzea aitazen dogunean, geuk daukaguzan  
aurrerapen gurariai egitezko erantzuna emoteko baiet-  
za agertzen gagoz.

Esaterako, dana gertu daukagu eperako dirua ezar-  
teko libretak izan daitezaz.

Laguntza barria da ori eta laster emongo dogu-  
zan laguntza askoren artean, lenengoa.


Gure laguntzak zabaltze ta aldatze au, Biz-  
kai'ko Aurrezki-Kutxak guztiontzat etorki-  
zun ederrago bat egitea gura dauala  
adiazoteko bidea izango da.

Etorkizuna, geroa, gaur asi bear do-  
91).

Biar emen izango da.

**BIZKAI'KO  
AURREZKI KUTXA**

*Geroa, berton daukagu.*



# OLENTZERO'REN DEIA

## ALDIAK

Urte barruan askotariko aldakuntzak izaten doguz: Oporrak eta lan aldiak, astegunak eta jaiak, egun luzedun udaldia ta gau luzedun negualdia, otzaldiak eta beroaldiak, legorraldiak eta ezoaldiak, Gabon-giroa ta Pazko-giroa...

Aldakuntza oneik gure bizitza aspergarria izan ez daiten laguntza izaten doguz: Beti bardin biziteak gogaitu eragiten dausku-ta.

\*

## GABONALDIA

Udako egun luzeen ordez, gau luzeak etorri jakuz: Etxe-bizitza indartzeko era egokia, ipuin zarrak eta sendiaren kultura-etorpideak zabaltzeko gauak, baiña zori-tzarrez, T.V.E. ainbeste ordutan iziotuta eukiteak ez dau kalte gitxi egiten: Sendi-bizitzan, euskera-erabilketan, etxeko alkartasunean...

Eta egualdi otzak kanpoan: Mendietan edurra, goizetan leia edo izotza, odeiak eta odei-otsak... Euria ta ezotasuna ugari.

\*

## OLENTZERO ZARRA

Aldi onetan, eta aspaldion lenago baiña gogotsuago, agertzen jaku Olentzero euskaldun zarren eredua be.

Len Aralar-inguruan eta Gipuzkoa'n egiten eban bere lana. Orain Euskalerririk geienera zabaldu ditu bere ikustaldi ta ibillaldiak.

Euskaldun zarren izenean, eta antxiñako artzaiñen antzera, salbatzaillea ba-datorrela edo etorri dala diñosku erdi-artzain eta erdi-ikazgin dogun agure baragarri onek.

Eta orretarako dabil etxerik etxe eta baserririk baserri.

\* \* \*

## SUAREN ESANGUREA

Ba-daukagu euskaldunak suaz zer-ikusia naikoa. Eta eguzkiagaz artu-emonetan dagon suaz, ain zuzen.

Gabonetan sutondoko mukurra ta illentia gogoratzen dauskuz Olentzero iziotuak eta donibanetako zuziak suaren laguntza baserri-lanetarako. Biak egunik luzeenetan eta laburrenetan, eguzkia gogoratzeko.

\* \* \*

## TXERTOIA

Gure jakintza zar onen barruan, txerto lez, kristiñauen oiturak eta ekintzak sartzen jakuz.

Gabonetan, gure ipuin zarrakaz batera, Jesus Umearen jaiotza ospatuko dogu eta orretarako etxeetan eta eleizetan alkartuko gara.

Ekarriko al dauz jaiotza onek Euskalerrarentzat zoriona ta bakea.

Eta, irakurle! Gabon zoriontsuak opa dautzuguz.

ZORIONAK!!!

---

## GADONAK

---

# GOAZEN BELEN'ERA

*Belengo atarian Ume txit polita  
lasto tartean dago bigunki jarria,  
lose eta Maria biotz gar-beteak  
dirala Umerentzat babes zaindaria.*

\* \* \*

*Aurkitzen dira bertan iru goi-aingeru  
zerutar guztin arte argi ederrenak:  
Gabirel, Errapel ta Mikel indartsua,  
adierazo nairik zer nai daun Umeak*

\* \* \*

*Gabirelen izena « Mezularia da».  
Ume orrek dakarla mezurik onena,  
Gaizkatzaren mezua azpalditik naia  
jesus'en jaiotzagaz eldu da gugana.*

\* \* \*

*Errapelek esan nai «Osakaia dala».  
jesus jaio barria osakai onena*

*gure pekatu guztin garbitzaille osoa  
munduak bear eban garbi zoriona.*

\* \*

*Mikelen esan naia «Nor jainko lakoa».  
Ume jesus biguna Leoi juda'koa,  
jainkoren seme da ta «Nor bera lakoa»  
jainkoren indar berak, garaille besoa.*

\* \* \*

*hu aingeru onein zeruko mezua  
gure biotz barruan Belen'go estalpean  
sartu bedi guregan biotzean josi  
izango gara indartsu gu bizi' guztian.*

\* \* \*

*Belen'go Umearen ezalpe ondoan  
gaurtik asita bete kristauok munduan  
bizi gaitazan zintzo gizadin eredu  
jesus Umeren mezu, indar ta osasunean.*

---

# MAITASUN BIDETATK

Maitasun utsa iragarri dot  
neure itzaldi guztitan,  
gorroto barik ibili naz ta  
nere ekintza danetan,  
maitasun bero sartu naiean  
erri ta baserrietan.

\* \* \*

Orain be bardin maitatuz egi  
deadar dagit abotsan,  
asko ezin dot egin oraingo,  
urte asko dot ganean,  
osasuna be gutxituz doa  
nere barru ta soñean.

\* \* \*

Menditik zear arnas estuka  
noela Bedar batean,  
"Maitasun", eldu gure errira  
askenez bai oraingoan,  
ordua da ta ez atzeratu  
egarriz gagoz barruan!!

\* \* \*

Mendi aitz gogor otz eta illa!  
Bigundu zaitez osoan,  
maitasunaren su beroagaz  
bigundu zaitez beingoan,

gogortasuna artuta gero  
biur zaiz bero errekan

\* \* \*

Mendi tontorko edur garbia!  
Ordua dozu urtzeko,  
gori biurtuz maitasun beroz  
gure biotz berotzeko.  
gure gorrotok artuaz gero  
arin beingon berotzeko.

\* \* \*

Landa zelaiko izotz otz-otza!  
Aldendu zaiz gure aldetik,  
maitasun izpi eguzkiagaz  
berotuz barru barrutik,  
erreka indartuz zure ur beroz  
maitasunaren errotik.

\* \* \*

Maitasunezko erreka aundi!  
Zabaldu mendi ibarretan  
ur epel gozo onuragarri,  
erein gure biotzetan,  
maitasunaren ur adar aundi  
bear da euskal errian.

\* \* \*

Mendi zelaiko loretxu danak!  
Zuek dozuen azi-urrun,

maitasun erein aizen bitartez  
gure biotz guztin barrun,  
maitasun ori emonkorra da:  
Bidal gorrotoa urrun!

\* \* \*

Ekaitz gogorren burrundadea !  
Gure arrotan entzun bei  
maitasun beron ezaugarria  
izan bei zure irrintzi  
entzun dagien gizaki danak  
ta begaraz beingon jantzi.

\* \* \*

Alkartasuna maitasun bidez  
sortuko da gure errian  
arpegi alai, begi argiak,  
irribar gure ezpanetan,  
poztasunean ibilko gara  
gure lan ta jolasetan.

\* \* \*

Argiro dago ez dala iñun  
maitetasuncz besterik  
gure arazok ebatziteko,  
maitasuna da bakarrik,  
ikasi bide, jarrai berari.  
Izango da garaipenik!

**GALLASTEGI'tar Kauldi'k**

# AGOZ ETA IDAZKIZ

## ELERTIA

Erderazko elertiaz mintzatzen garanean, elerti idatzia baiño ez dogu kontuan artzen. Baiña Euskal-elertian ez da olakorik jazoten. Euskal-elertia idazleak bakarrik ez dabe osatzen. Orregaitik zatiketa au egin geinke: Elerti idatzia eta aoz-aozko elertia.

### ARGITARATU: SALDU?

Beste izkuntzari begiratu ezkerro, gure izkuntzan gitxi, oso gitxi, idatzi da, Antza danetik euskaldunak ez dabe zaletasunik euki idazteko.

Orrela ta guttiz Bernat D'Ettxepare-ren garaitik gaur arte euri askok busti dau gure Euskal Erria, bai ta ainbat paper betetu gure idazleak.

Egunero sortzen dira idazle barriak, baiña liburu gitxi argitaratzen dira, eta argitaratzen direnak bildur aundiaz.

Salduko dira ala ez?

Au da gure idazleen buruko miña!

Arazoi aundia daukeela esan bear, zenbat euskal irakurle dagoan ikusiaz.

Zertarako idatzi inork ez ba' dau irakurten?

Zertarako erosi irakurriko ez doguzan liburuak?

Liburutegia apaintzeko?

Ez dagoz denporak liburutegiak apaintzen dirua ondatzeko.

Baiña erderazko liburuak erosteko ba-dago dirua bai eta astia irakurteko.

Euskaldunak osterera «rollo» aundi bat ei dira.

### IPUIN ZARRAK

Beste elerti-erari begira, au da, aoz-aozko elertiar begira, izenak berak diñoanez, aoz-aoz doazen gauzak aipatu bear doguz, batez be ipuiñak eta edestiak.

Nork ez dauz entzun aitzak edo aititak kontatutako Anboto'ko Mari'ren gauzak, edo -lamiñen kontuak, edo basa jaunaren indarra, edo sorgiñen sorginkeriak, edo... zenbat mito ete dagoz Euskal Errian?

Eta nork ez dauz gogoratzen amak kontatutako ipuiñak...?

### BERTSOLARIA

Baiña uts aundia egingo gen-

duan aoz-aozko elertian bertsolaria astuko ba'geunke.


Errietan egiten diran jaialdietan baten baiño sarriago ikusiko genduzan doiñu bateri itzak ipintzen era batean, birritan pentsatu barik.

Eta zelakoak esan be!

Baiña zer da bertsolaria?

Nere ustez bertsolaria **erriaren abotsa** da, itz gogorak oneik eta kontuan artu bear diranak, bai entzuleen aldetik eta bai bertsolarien aldetik: erri baten abotsa izatea ez da edozelako lelo bat izatea, ez da edozetariko lelokeriak esatea.

Onetaz gañera bertsolariak



mugarik ez daukala kontuan euki bear da. Bertsolaria mugatuten ba'da, orduantze amaitzen da orduan alderdi baten edo talde baten abotsa izango da, baiña ez erriarena.

### BERTSO IDATZIAK

Bertsolaritzaren kondairan bada bertsolari batzuk, plazetan botatako bertsoak, gero paperetan ipiñi dabezanak, batez be azkenengo garai onetan.

Itzak eta abestiak idatzita ez ha' dagoz aizeak erooten dauz, idatzitakoa betirako da.

Asmo orregaz sortu ziran paper bertsoak.

### TXIRRITA

Idazki onetan bertsolari bat ipini bear ba'neuke eredu lez **txirrita** izango litzake neretzat eredurik onena.

Baztutan barre osoa, garbia erabiltzen eban, beste batzutan azeria baiño zorrotzagoa zan, baiña ba-ekian gai gogorak erabiltzen be, naiz eta politikako gaietan sartu.

Adibidez emen daukaguz Canovasi il eta gero egindako bertsoak:

*Il da Canovas, fuera Canovas,  
pikaro gaizki ez ya  
galdu zituen gari-zelaiak,  
gallendu zaio sasia;  
galdu zituen ipar garbiyak  
gallendu trumoi nasya  
galdu zituen fueruak eta  
jaungoikoaren graziya  
galdu zituen bizi-lekuak  
galdu du bere biziya.*

### AREATZA'KO ESKOLEA

Baiña zertan da gaur bertso- I aritza?

Oraindiño ikusten doguz bertsolariak gure errietako plazetan.

Ba etc dago etorkizunik?

Ba ete dira bertsolari barriak, Txirrita barriak?

Gazteak gura izan eskero ez dot uste irakasle onen ezik dagoenik.

Or daukagu Muxika'ko eskola, zenbat bertsolari urten ete dira eskola orretatik Enbeitatarren-gandik asi eta gaur arteraiño?

Jaungoikoak gura dagiela eskola orrek jarraitzea eta beste batzuk sortzea, osterantzean bertsolaritza galdu egingo da, erria isilik geldituko da, eta orduan ez dogu erririk izango.

ENDIKA

# JAGOLEA

Erriagana begira nago,  
mendi, ibai ta urira,  
biziaren inguru guztiak  
deika dagoz Aberrira.

Egiaren otsa entzun nai dot  
mendi, bai ta uritik,  
ustelkeririk gabeko itza  
erri-egal guztietatik.

Bizia ez da zorakeria.  
Bizi sena astuna da,  
argi, arrizko izan bear dau  
egi-senak eraginda.

Gizonen semea ez da jaio  
zapaldua izateko,  
aske izateko jaio nintzan  
erri legez biziteko.

Lurrean ogia dut janari  
gosearen asegarri,  
ogi utsa ez dozu izanen  
gogoaren bizigarri.

Maltzurkeriak bizi dabiltzaz  
nunnai aldi guztietan,  
«erre» suzko itzak entzun nitun  
gizon gaizto agoetan.

Erre izan zan gizon itzetan  
txarkeriaren soiñua,  
sua agertu zan errietan  
zitalkeri gorrotua.

Zenbat abots gaizto entzun nitun,  
len, gaztea nintzelarik,  
kristau etxeak austu eskatzen  
demagogiz usteldurik.

Gudariak ikusi nituan  
mutil garbi, bulartsuak,  
euskal bizia, zintzo, jagoten  
erritar adoretzuak.

Gaur be, ba-ditu Euskalerrriak,  
aldiko mintzolariak,  
gizadi onek maite ez daben  
joko oiukalariak.

Gizon, sinismen, bizibidea,  
erriak ditun sustraiak,  
nire jaiotz, bizitz ta azpenak  
ortxe, daukaz oiñarriak.

Doakabe izanen gizona  
erri ta sinismen gabe,  
lana, ogia ta Egillea  
ditut lagun ta jabe.

Gudaria izanen gaur ere,  
Euzkadiren jagolea,  
atxur, fede, otoi, ekin mailluz  
euskaldunen errotea.

PAULIN

# BASAJAUNA

*Euskalerrian basoetako perretxi-koak lez ugaritu dira, gizaldiz gizaldi, muela askotariko ipuiñak, elezar ta alegi interesgarri ta sudu aundikoak.*

*Erri ze ta xumeak, irudimen bere beraganatu ditu geienak eta eskutapenez jantzi ondoren, millaka azalpenez sakabanatu.*

*Jazokizun bakoitxean ez datoz beti guztiak bat, ori ta be ardatz sendo baten ingurumarian lez, noizean bein argi motelaz, beste batzutan dizdiratsua, beti ur-urrean dabilkiguz eura.*

*Ez da ezelan be arritzekoa, Erri zarra da benetan gurea. Mendiz, bide zidorrez eta erreka ta leiza-zuloz gai*

*Biotza alan eta guztiz be egundaiño bizirik irauteko. Goazen baiña, arira.*

## ITXURA TRAKETZA

*Bere irudi basatia onelan azaldu daikegu.*

*Giza-itxurako mamu itsusia dogu, erdi abere, erdi gizatzar, ar-zulo ta lurpe eskutuenetan bizi ta baso ta oian trinkoetan gorde oi dana.*

*Goi-bera izugarritz eta indar ika ornidua.*

*Bere soin guztia ule luze edatsuz estalduta, egundoko adatz baten gisa.*

*Gizaki bat letxe, tente ta anka bigaz, makilla bat eskuan daroala, ibilli dabil.*

*Bizkortasunez jokatzekotan, ez dau-tso orein batek urrundik be jarraituko.*

## JOKAERAK

*Menditarteko bide-zidor estuetatik arin samar dabillen bidaztiak eta euri jasaren aurretik bere artaldea daroan artzain zaillak, euren izenak mendi-bizkarrez bizkar bein eta gaia*

*tan durundu zaratatsuz ber-esanak dirala entzungo dabez, bildur-ikarea ta dardar-ozkirria azur-muiñetan sartzen jaken une berean. Urrean dabil basajun dollorra.*

*Gau-aizearen zatots izukioak eta itzal-une ezkutuzkoak bere, berari zor jakoz.*

*Beste erri-esakeretan noiz-beinka bere gaiztakeria ta maltzurkeria dargerkiguz eta sarritan bere gizatasun maitekorra.*

*Aulako aldakuntzak dauz erri xalo ta lauak!*

*Onela, batzun aburuz artaldean jagole leiatsu agertzen jaku, bai artzai ekaitza datorrela aldiz gastigatuz, baita be artegi inguru-minguruetan dabizen otso ta basa-txakurrak borda aldendu-erazoz.*

## BIZITOKIA

*Baranadiaran jaun ospetsuaren iri mendian triku erlo jentil-arri (dolmen) bat idoro geinke eta erriaren oiuz, emen bizi ei da gure aspaldiko giza-itxurazko mamua, basajaun itzala.*

## ARTZAIN-MUTIL BAT

*Ba-zan bein Mendibe'tar artzain-txo bat. Mendiartean bei batzuk gal-*

*ratsua zan argi-mutilik ederrenetariko bat garbitzen eban.*


*Orduan, argi-mutil ori beraganatzea otu jakon, Salbatzaillearen ize-nekoa zan bere erriko eleizara eroateko.*

*Otu ta lortu. Zelataldi baten ondoren, basajauna aldendu orduko, gure artzain txikiak ariñeketa baten argi-mutil baliotsua artu eban.*

*Basajaunak mendi-tontoretik ikus-tatu eban artzaiñoa ta izugarritzko artazi ta jauzkadaz bere aurrez-aurre jarri jakon.*

*Mutillak orduan bizikiro otoitz egin eban esanez: «Salbatzaille Jaun eta jaungoikoa! Zure eleizarako zan argi-mutil au. Nitzaz errukitu zaite!»*

*Une berean, eleizako kanpai-soiñu ta bilin-bolakak entzun ziran eta basajauna bertan josita lez gelditu. zan.*



*ditrik eukazala-ta, barruratu zan bei mendi trinko barneraiño euren billa.*

*Ibilli ta ibilli, Ilunatze'ko aitzetara eldu zan eta an dagoan ar-zulo bat aurkitu eban Ar-zulo ontan eukan basajaun erraldioak egontoki ta bizilekua.*

*Cure mutil bizkorra sasi artean ezkutaturik, bertatik ikusmiratu eban zelan basajaunak, urrea baizen disdi-*

*Asarre bizian esan eutsan artzai «Eleizako kanpai zar orreri zor dautsozu bizia, bestela oraintxe berton zatituko zindukedaz »•*


*Gure gaztetxua eleizara sartu zan eta otoitz beroan jardun eban.*

*Urteak joan, urteak etorri, salbatzaillearen eleizea suak artu eban eta argi-mutilla betiko suntzitu zan.*

**ARREGI'tar Josu'k**



## Ortuella'n eta Sestao'n Bizkaieraz



Sestao'n ez da dana laba handia ta kea

### DURE BIZKAIEREA

*Azkenengo urte oneitan Bizkai'ko euskerea (gane euskerea) ikasteko zaletasuna geno la aundiagoa dala esan daikegu. iVerbion itxas-adarraren\* ezker aldean batez ere nabailzen\* da zirkin an.*

*Orain 3 illabete dala, Alonsolegi erria aztertu\* genduan apurtxo bol euskera aldetik, gaua asiera, Sestao la Ortuella'ko zaletasuna neurluko\* dogu, la orretarako erri bi oneitan euskerazko klaseak emoten dauazan neska euskaldunbarri bategaz, Palmi'gaz ainzuzen be, orain irakurriko dozen alkarrizkela egin dogu:*

### PALMI'GAZ BERBAZ

**ZER.—Palmi, zuk nun emoten dozuz klaseak?**

**PALMIIL—**Asieran\* esan dozun lez, Sestao'n eta Ortuella'n. Sestao'n bertako Batzokian 20 ikasle dodaz eta Ortuella'n 30 bat, azkenengo onek curen semealabak ikastolara bialtzen dabezan gurasoak (lira).

### ZALETASUNA

**Z.—**Erri oneitan, Sestao'n eta Ortuella'n, zaletasuna\* salto auskeraz ikasteko?

**P.—**Bai, zaletasun naiko aundia (lago, bear ba'da Sestao'n Ortuella'n baiño geiago, baiña arlo onetan utsune\* aundi bat ikusten dot gazte batzuen aldetik, ez clautsoe euskerari merezi dauan garrantzia\* emoten, nik esango neuke, apur bat alperrak dirala.

### NORTZUK ETA NOZ

**Z.—**Gutziz zenbat ikasle dagoz Ortuella'n eta Sestao'n?

**P.—**Sestao'ko batzokian 60 bat ikasle dagoz eta Ortuella'n 50.

**Z.—**Noiz asi zarie klase onek emoten?

**P.—**Sestao'n igaz asi giñan eta Ortuella'n aurtan. Gu asi baiño len beste batzuk lan aundia egin dabela aitortu bear dot. Sestao'n ain zuzen be orain 15 urte euskerazko klaseak ensoten ziran La Salle ikastetxean, beraz emengo zaletasuna ez da gaurkoa.

### ARAZOAK ETA ASMOAK

**Z.—**Arazo edo ostoporen bat izan dozue?

**P.—**Ez, ez dogu ezertxo be euki.

**Z.—**Sestao'n, kaleko giroa\* euskaldundu da apurtxo bat ala ez?

**P.—**Nire ustez ez, «pegatina» asko ikusten dira, baiña ortik aparte ez dakit...

**Z.—**Zure asmoak?


**P.—**Lenengoa, klase onekiaz jarraitu eta gero ia emengo giroa euskalcluntzen dogun eta gure jakintza zabaltzen dogun alde guztietatik.

### GAZTEDIA

**Z.—**Sestao-ta Ortuella'ko gaztediari zer esango zeuski?

**P.—**Ba, euskerearen mundu zoragarri\* onetan sartu daitezala ta gure izkuntza ikasi dagiela ta gero beste euskera ta Aberriaren alde lan egin daiela.

**Z.—**Eskerrikasko Palmi ta jarraitu aurrera, ta iñoiz aitzu bear ez doguna auxe da: EUSKERA BARIK EZ DAGOLA BENETAKO EUSKALERRIK.  
**IBARRA'tar Bernardo'k**



## OARRA

ARRATE'KO AMA BIRJIÑA SORTZEZ GARBIA KORONATU EBELA 50 URTE BETETZEAN ZEMENDIKO «ZER» ONEN BIDEZ SEKULAKO OSPAKIZUNAK IZANGO ZIRALA ARRATE'N IRAGARRI GENDUAN, BAIÑA AZKENENGO MOMENTUAN ATZERATU EGIN ZIRAN OSPAKIZUN ONEIK.

OAR ONEN BIDEZ JAKIN ERAZI GURA DAUTZUEGU GABONILLAREN 8'AN OSPATUKO DALA EGUN AUNDI ORI ARRATE'N.

GABONILLAREN 8'AN DANOK ARRATE'RA, EIBAR'KO ZAINDARI NAGUSIAK ETA EUSKALERRIKO TXISTULARIEN ZAINDARIAK MEREZI DAU TA.

## ARRATE'ko AMARI BERTSO BI

*Arrate'n agertu zan argidun izarra  
euskaldunen zaindaria Amalxo samurra  
gura ba'dogu euki amaren eskerra  
egin daiogun danok maitasun agurra.*

*Arrate'n zaude beti gure zai gau la egun  
zure laguntza Ama bearrezko gendun  
beti izan gaitezcan euskaldun fededun  
Arrate'ko izarra egiguzu lagun.*

Arrate'ko Ama: Eibar'tarren  
eta txistulari guztien zaindaria



# ARIN - ARIN

## IZTEGIA

*Esan daikegu* = podemos decir  
*itxas-adar* = ría  
*nabailu* = advertir, observar  
*azlerin* = examinar  
*neurtu* = medir  
*asiera* = principio, comienzo  
*zalelasan* = afición  
*ulsune* = hueco, vacío, bache  
*garrantzi* = importancia  
*giro* = ambiente  
*esango zeuskio* = le dirías  
*zoragarri* = encantador  
*zabalkunde* = propaganda  
*jarri* = poner  
*kutsadura* = contaminación  
*agiri izan* = aparecer, dejarse ver  
*euskal-aditza* = verbo vasco

«Euskaldun barri» orrialde bi oneitako irakurle guztiei ta batez ere euskeraz ikasten diarduen guztiei urte onetako amaiera zoriontsu bat opa dautzuegu ta ia laster eltzen jakun 1980 urte barriak, poza, adizkidetasuna, zoriona ta askatasuna ekarzen dauskuzan.

Guk, gure aldetik, Bizkai'ko euskerearen alde ekingo dogu jo ta ke.

Zorionak.

ZANGRONIZ

## Iztegi Berezia


ERRI : Guri komeni jakuna lortu gura dogunean erabiltzen dogun berbea.  
 ORMA : Politiko-taldeen zabalkundea\* jartzeko\* lekua.  
 KUTSADURA\* : Bilbo'ko eguneroko ogia.  
 ARDAO : Ura lez artzen dan edari baltza.  
 PAGO : Gure mendietan gero la gitxiago agiri\* dan zugaitza.  
 EUSKAL-ADITZA\* : Euskaldun barriok geiago ikasi bear doguna.  
 ZERU GARBI : Estilxu'ren abesti baten izena.

**Euskaldun barri**

## Izki - Nastea

B E R K L L U Z A S K L A M O  
 E A R A L A R O S R O T Z E D  
 G O U D D T S B E N R X U B A  
 U Ñ Z I L L I G S T M I Z E K  
 A R R S A R R A T E T J A L U  
 L R K R U Z E B I M A X Z I J  
 U T P I J A N E B I B U N K U  
 T X O M O X R Ñ A S T X A A P  
 O G A O L L O I L I S O R R A  
 D E Ñ A L P A B I L L Z A O D  
 I L L T S U K O Z E G A — S U

Izki-naste onetan Euskalerrri'ko bost santutegiren izenak agertzen dira, aurkitzen ez ba'dozuz ikusi azkenego orrialdean.



ZORIONAK




# PASIoTARRAK EI

## JAIK

Bilbo'n, Deustu deritxon auzo-  
unean, Pasiotar lekaideak euren  
etxea dauke. Gure irakurleen  
artean guztiz ezaguna dogu, gu-  
da-aurretik eta guda-ostean ain  
ospetsu izan dogun San Feli-  
zisimo'ren konbentu au.

Aurten euren Bilbao'ra etor-  
tearen eungarren urtea dogu eta  
pasiotarrak, erriagaz batera,  
poztasunez ospatu dabe egun  
gogoangarri au, batez be iru-  
rren gogotsu baten, urrillaren  
17'tik 20'ra.



*Auresku Ikusgarria Meza-Barruan*

## ETORREREA

Mendizabal'ek, jakiña danez,  
lekaideak España'tik kanpora  
baltzeko agindua emon eban  
eta lekaideak berriro erdi-ugar-  
te onetara sartzeko askatasuna  
lortu ebenean, pasiotarrak izan  
ziran lenengotarikoak sartzen.

## JAIETARA DEIA

Ospakizunaren jai oneik os-  
patzeko, aurretiaz izparringi ta

irratien bidez erriari barria  
emon jakon.

Benetan, eun urteko kondai-  
rea gogoratzeak merezi eban  
olako dei zabala ta berarizkoa !

Egokia zan egun oneitan pasio-  
tarrari *oroipena ta* esker ona  
agertzea!

## BIZKAI'TIK ZABALTZEN

Lekaide oneik 1879'an eldu  
ziran erdi-ugarte edo «Peninsu-  
la» onetara eta gero 1880'an  
Deustu'n egin eben Lekaide-etxe  
guztien ama dan etxea.

## ERRI-MIXIOLARIAK

Baiña Orain gogoratu dagi-  
guzan, lengo gizaldiaren azke-  
nean eta oraingoaren aiseran,  
Bizkai'ko erri txikietan pasio-  
tarrak emoten ebezan mixiño  
gogoangarriak.

Gogoratu dagiguzan aita 1(e)-  
lemente, aita Martin, eta aita  
Eladio, gogo gartsuz eta Jain-  
koaren Espirituz beteriko gizo-  
nak ! Eta zenbat beste pasiotar,  
orrein irudiko ta oiñordeko !

Kementsuak, indartsuak eta  
gogo gartsukoak mixiolari  
areek !

Eta ez ziran eurak bakarrik,  
Frantzisko'tarrak eta Karmel  
darrak be eurakaz lan au egiten  
eben, Bizkaia'n Jesukristo'ren  
Barri Ona zabaldu ta irakas-  
ten.

## DEITUEN TALDEAK

Ziurki, euren apostolu - lan  
onen ondorenetariko bat, Jaun-  
goikoaren deia entzun eta ja-  
rraitu eben asko ta askoren  
uzta ederra izan da, batez be  
guda-aurreko urte areitan lo-  
ratu ta garaundu ziran gizon  
deituak.

Eta Bizkaia'n daukagun kris-  
tautasun oargarria, zati on bat,  
lan *arein frutua da*.

## EUSKERA

Euskera ederra izaten zan,  
adieraztzailea, ulerterreza, era-  
bilten ebena. Apainduri larregi  
barik, errietan entzuten zan eus-  
kera bera, iñoz erdel itzak era-  
billi arren, atzizkiz eta joske-  
raz, gaurko euskera batua baiño  
ederragoa.

## IRURRENA

Irurren au zeaztuteko artu  
dogun asmoari jarraituz, goiz  
eta arratsalde eungarren ur-  
tebetetza oneri buruzko berbal-  
diak egiten ziran.

Gero, Deustu'tik urten eben  
Arabara, Naparroa'ra ta Gali-  
zia'ra, eta erki onetatik sortu  
ziran España'n diran lekaide-  
erki biak.

## EGO-AMERIKETARA

Eta erki bakoitxetik lekaide-  
taldeak urten eta Ego-Amerike-  
tara joan ziran: Txilera, Ar-  
jentiña'ra, Mexiko,ra, Kolonia'  
ra, Ekuador'era, eta abar... eta  
an diardue apostolu-lanean.

# UN URTE BILBON

Arratsaldeetan, eguneko lanak amaitu ondoren, pasiotarren errietako jaupariakaz egiten ziran mezetan, Gotzain bik eta Pasiotarren Lagundiko Buru-Nagusiak artu eben lekua.

Bere izen-egun eta Pasiotarren Irasle santuaren egunean, aita Paul Boyle Pasiotar guztien Nagusiak, meza onetara etorteko asti apur bat atera al izan eban.

Izenpetzen dauan eta Meza orretan egon zan albistariak, jaupari-talde aundia ikusi ebala esanez gaiñera, eusko-ekintza bi berezitu gura ditu.

## AURRESKUA

Lenengoa, meza-barruan multiltxu batek egindako aurreskua.

Onen antzeko aurresku asko ikusi dodaz, baiña au be berrizkoa izan zan.

Iru edo lau eratakola zala uste dot, baiña ain polito eginda, dantza-teknika orren garbiz, aurreko guztiak lilluratuz eta zoratuta lez egoteraiño

Benetan ikusgarria amaraikaren bat urteko mutikoa-ren dantzea: «Artazika ta morapilloka bere anka bizkorrez txilibituaren soiñu arin batek lagunduta, atzera ta aurrera, ta gora-goraka eta milla jira-biraz».

## «IKAS-AMA»

Bigarrena, Meza-ostean, Ikas-Ama Abes-taldearen jardunketa.

Ikas-Ama taldea gure pasiotarrena da eta abots zuriduna.

Aita Paskal, Barturen organujotzaille, musikalari, eresgille, Abes-Batz zuzendari entzute-tsua dogu Euzkadi'n, batez be Euskal Meza Orkestaratuagaitik. Orixe zan artezle.

Aita Paskal Barturen izatez Bakio'ko semea da eta bere

erti-lanen aipamen bat baiño geiago egin dira gure ZER aldizkari onetan.

## ABESTI TA ABOTS ONAK

Baiña Ikas-Ama'ri buruz ez dot uste iñoiz oroipenik egin danik, eta egin ba'da be bide batez, beste gairen bat azaldukeran izango zan.

Baiña Ikas-Ama'k merezi dau aipamen luzeago ta argiago bat.

Bizkaia'n ezaguna da sarritan agertu dalako, eta Euzkadi'ko


baziko leuskiola uste dot.

Eta dana esatekotan, batzutan findu, zolitu ta liraindutean utsune batzuk agertzen ditu, asti gitxi aurkitzen dau ta, ez da beti eltzen eldu al dauan mailara.

## AMAIA

Eta amaitu zan ekiñaldi polita diñogun egun onetan, dana euskeraz.

Aita Boyle Pasiotarren Nagusiari izpillua baiño dizdira-



Boyle Aitaren Berbaldia

beste eskualde batzutan be baitetz uste dot.

Abesti-sorta ugaria daukalako eta bere abotsak onak diralako da ezagun.

## ABES-MAILLAK

Emakumeen abes-maillak gizonenak baiño zabalgun eundiagokoak ei dira.

«Ikas-Ama»'k bere abeslari guztien artean edozein abesbatzeri zeingeiagoka orretan ira-

tsuagoa zan zidarrezko errati-llua eskiñi eutsoen.

## BOYLE AITAREN AGURRA

Boyle'tar Paul bere jesarlektik jagi zan eta itz egoki batzuk Iparrameriketako izkuntza ingelarrean, gatz aundiz iñozala, itzal aundiko lagunarteari barre eragiñez amaitu zan eungarren urteko ospakizun ederra.

LETONA'k

## JAIO -BARIA

---

### POZA TA BATEOA

Jaio barria etxeko poza da. Leen be ala izaten zan. Baiña, pozaz gaiñera, etxeko ardura be bai. Nor ez da arduratzen umetxu baten osasunaz edo biziak?

Onez gaiñera, umea leenbaileen bateatzeko oitura be ba-zan euskaldunen artean.

Gaur egunean oitura au ez da jarraitzen; ilteko leengo beste arrisku be ez dogu, eta taldeka bateatzen dira.

Izan be, gure siñiskerak alkartu egiten gaitu eta alkartu egin bear gaitu. Sentzu ori dabe gaurko taldekako bateoak.

\* \* \*

### LEN BAIT LEN

Orain urte batzuk, ostera, ez zan orrela: jaio eta egun gitxi barru bataiatzen zan umea. Zergaitik?

Arrazoi bereziak ziran.

Leenengo eta bein, aurrerakuntza aundirik be ez zan eta ume asko eta asko il egiten zalako.

Beraz, ez eben nai bateatu barik umerik ilterik. Onetan siñiskerak be bere eragiña eban: bateatu barik il ezkeru, ez ei dira umeak zerura joaten, linbora baiño.

Siñiskera au dala eta, bateatu barik iltzen ziran umeak toki berezi baten lurperatzen ziran: etxe ondoko baratzean edo etxe-alde bateko itu

Ez ebezan etxeko illen ondoan lurperatzen.

\* \* \*

### EGUN AUNDIA

Bestalde, bateatu baiño leen umei ez janken mosurik emoten, oraindik ez zan Jaungoikoaren semea eta.

Baiña onetarako ba-zan beste arrazoi bat be : sorgiñak kalte aundiak egiten eutseezan bateatu barik egoten ziran umei. Sarritan il be egiten ci ebezan. Bildur au zala eta, leenbaileen bateatzera eroaten ebezan.

Bateo eguna, beraz, egun aundia izaten zan eta da. Egun orretatik sendia zorionsaugo eta nasaia go bizi zan.

\* \* \*

### AITA-AMABITXIAK

Siñismen arazoetatik kanpo, bateoak beste arlo batzuk be ba-dauz.

Esate baterako, aitabitxi-amabitxi izatea, jaio barriaren izena, gozoki banatzea, eta abar, eta abar.

Ikusi: aitabitxi eta amabitxi ez ziran edonor izaten. Ia geienak oitura au jarraitzen eben:

leenengo seme edo alabaren aitabitxi-amabitxiak aitaren aldeko aitata eta amaren aldeko amoma izaten ziran; bigarren semearenean, beste aitita Onein ostein, osaba-ixekoak, legusu-lengusiñak, eta abar.

Oitura au naiko ondo jagoten zan. Baiña ba-zan salbuespen bat: bizitza txarreko pertsonak ezin eben izan.

\* \* \*

### ADISKIDETZEA

Aitabitxi-amabitxi izatea, ba, kategoria aundia zan. Askok eta askok nai izaten eban izan. Baiña txanda itxaron bear zan.

Ukatzea, barriz, pekatu zan, eta, beraz, danak onartzen eben betebear au.

Onela egitea zerurako be ba-zala uste izaten zan erri askotan : ama baten iru seme-alabaren aitabitxi edo amabitxi izan ezkeru, zerua ziur egoan.

Bestalde, betebear au adiskidetasunerako bidea be ba-zan: sendi barruan asarratuta ba'egozan, aitabitxi-amabitxitzarako aukeratu ezkeru, adiskidetu egiten ziran.

\* \* \*

### IZENA

Izena aukeratzeko be jokabide bereziak ziran.

Abizena ez galtzeko aalegiñak egiten ba'ziran, izenagaz be bardintsu gertatzen zan, leen semeagaz beintzat.

Au izango zan biar-etziko etxeko oiñorde. Beraz, izena eta abizena, biak, zaindu bear ziran.

Onela, sarritan, aitita «Pepe Anton» zanean, onen leen semea eta loba zaarrena bardin deitzen ziran. Ona emen iru: Pepe Anton Zaarra, Pepe Anton gaztea eta Pepe Anton txikia.

Beste batzutan izena aukeratzeko aitabitxi eta amabitxiren arazo utsa izaten zan. Biok bakarrik asmatzen eben eta iñori be ez eutsoen esaten eleizatik etorri arte.

Onela sendi barruan ez egoan eztabaidarik.

Eleizatik biurtzean, esaten eben, eta kito.

Baiña ba-egozan beste jokabide batzuk be: esate baterako, eguneko santuaren izena edo aurreko baten izena jartzea, eta abar.

\*

### OSTEAN JAI

Bateo ostein txokolatada bat edo jatordu bat egiten zan. Ostein senditar pillo bat izaten zan. Emagiña be joaten zan. Adiñekoak jaten eben bitartean, umeak kalean ibiltzen ziran bateoko gozokiak jaten. A zan poza!

Ona emen ume eta adiñekoak pozez itxaron eta ospatzen daben eguna.

JOSU LEGARRETA

# GABON -SARIA

«JAIOTZA»

Ondarru erriko umetxuak errondan ibiltzen dira Gabon arratsaldetan, beste Euskalerrriko umetxu asko lez.

Kale bakotzak atonduten dau bere taldetxua. Eta etxez-etxe doaz gero kantari, Gabsariaren eske.

Aste bat aurretik, asi dira Goenkale'ko umetxuak euren «jaiotza» gertauten. Gorka da euren kapitana edo buruzagi; eta onen etxeko sotoa bihurtu dabe euren zeregiñetarako lantegi.

Artu berton dagozan ol zar batzuk, eta laster egin dabe artzain-txabola-antzeko bat. Eta age sendo bi egotzi dautsoez urren, euren eskuetan eroso eroateko.

Aitor'ek bere etxeko Jesus seiñaren irudia dakar gero; Iñaki'k, Andra Maria'rena; Mikel'ek, san Jose'rena; Anton'ek, idiarena; Peru'k, as-toarena...

Eta arin eta egoki ta ondo antolatu dabe, guztion artean, Jesus'en «jaiotza».

«ERREZA ALA KANTA?»

Eta asi dira eskean, aterik ate.

Atea jo, ta auxe esaten dabe: Erreza ala kanta?

Etxean dolurik ez ba'dago, «kanta» erantzuten dautsee. Eta an dolurik ba'dago «erreza». Eta «Aita Gure» bat esaten dabe olakoetan.

Etkez-etxe, kanta ta erreza katanarrua naiko beterik,

eldu dira azkenik Xarguku'ra. Eta auxe diñotse Gorkak bere lagunai:

Gogoratzen zaree zelango arrera egin euskuen, igaz, emen?

Bai gero-erantzun eutsen Iñakik-Intxaurrak eta sagar-rak emon euskuezan, eta bost ogerleko, gaiñera.

Aurten ez joagu gitxiago izango!

Tan-tan, atea jo, ta gizona urten jaken igazko bestera. Eta Gorkak, teldeburuak, erdi-lotsa erdi-zur...:

—Kanta ala erreza...?

Eta iñungo erantzunik emon barik, etxe barrura zan sartu gizona. Eta an dator gero, bere emazte Miren'egaz. Eta auxe esan eutsen onek eskekoai, erdi-illun erdi-argi:

—Sartu, sartu barrura.

Eskekoak euren jaiotza solairuan itxi, eta aurrera-keiñua egin eben.

Ez, ez... ! Jesus'en jaiotza ta guzti etorri!

«UMETXUA LO-ANTZEAN»

Gela bat pasa, pasa bes-tea..., ta etxeko jantoki zabalera eroan ditu etxeko-andreak geure mutikotxuak.

An sartu, ta... au arriagarria ! Umetxu bat ikusten dabe seaskan lo-antzean. Eta ba-dirautse etxekoandreak:

Kanta, mutikotxuok !

Bai baiña..., itxartu egin-go dogu umetxua... !

—Ez bildurrik izan! Gaur goizean itxi ditu betiko bere begitxu ederrak !

Erreza, beraz...?

—Ez, ez..., kanta. Ez jake errezatzen aingerutxuai, kanta baiño !

Eta au esanik, bere ilbarriko seintxua besoetan artu, ta mutikotxuen jaiotzan ipiñi eban: an, Mari ta Joseperen erdian, eta Jesus Jainkoaren ondoan. Eta ba-dirautso, barrero, Gorka'ri:

Ea, kanta!...

Zer kanta, baiña... ?

Zuen kantarik ederrena.

«UME EDER BATEN BILLA»

Eta asi dira errondakoak: malkoak begietan, eta zotiñak eztarrietan:

.Aur eder baten billa gabiltza zorutzen; izarrak esan digu galdetzeko emen. Jaungoikoaren Erri maite Jerusalem: esan zaiguzu laster Jesus non jaio den.

Mutikotxuak kanta bitartean, Miren ta Xargu, ilbarraren gurasoak begi bustiak zerurantz jasorik egozan otizlari. Eta olan esan eutseen, kanta amaikeran, etxekoandreak mutiko kantariari:

—Eskerrik asko, mutikuok ! Zuek izan zaree zeruetako aingeruen mandatari! Zuek ekarri dautsozue, gaur, gure etxe oneri benetako zoriona. Gaur jaio da lurrean zeruetako Jauna; eta gaur jaio da zeruetan geure erraietako seintxua.

ESTONBA'tar Mañuel'ek

---

## ELEIZEA

---

# NAIBAGETUEN BAKEGARRI

### ABADEEN ALDE

Abade batek abadeatzaz itz egitea ez da gauza atsegingarria, baiña, noiz edo noiz, itz ori eginbearrean gagozala deritxat.

Parkatu ba irakurleok, neure gaurko idazkitxo au abadearen alde izatea.

\* \* \*

### ALPERREKOAK?

Or emen, sarri ta geigotan entzun oi da: Zertarako abadeak? Gauza onuragarririk etc dakar abadeak gizadiarentzako? Ez ete dira alperrezkoak? Eurak baga, ez ete litzateke erria obeto ibiliko?

Ori beti esan oi dabe siñesbageak eta lurreko bizitza bakarrik barri dabenak.

Oraingoz tamalez, orixe berberori, ao zabalka, diño cliztar askok bere.

\* \* \*

### ONURA BAT

Ez noa ni abadeak gizadiari egiten dautson on guztia izentatuten, nire idazkitxo au azken bakoa izango litzatelako.

Abade zintzoak gizadiari ekarten dautson onura bat bakarrik izentatuko dot emen.

Auxe da bera: «Abadea naibagetuen bakegarria da».

\* \* \*

### ESAN - BEARRA

Mundu onetan gizaki guztiak, bein edo geigotan susmatzen

dabe, curen barruko naibage ta kezkak besteari agertuteko bear edo premiña.

Bere barruko bor - bor kezkak besteari esanagaz asetuten da gizona.

\* \* \*

### NORI?

Baiña beste bateri norberagan borbor irakiten dagozan kezkak esateko, onek uste osokoak izan bear dau, bestela iñor bere ez da ausartuko beste bateri bere barruko arazo ta naigabeak azalduten. Beste au isilla ta zintzoa ba'da, orduan bai uste osoaz bere biotza zabalduko dautso oso osoan.

\* \* \*

### USTE OSOAZ

Erriak ba-daki abade zintzoak ba-dakiela besteen naibageak entzun eta isilduten.

Ori jakiñik, gizakiak geien baten bakearen billa uste ta itxaropen osoaz, euren kezka guztiak asaltutera abadeagana urreratuten dira.

Zenbat orrelako gizon, andra ta gazte samindu ta kezkatuak, autorlekuan, eliz-gelan edo beste edonun abadeagan aurkitu daben bakea ta atscdena!

\* \* \*

### LAN ASPERGARRIA

Abadearentzat lan au aspergarria da askotan, baiña zintzo danez eta Jaunagan daben siñismenaz indarturik orduak eta

orduak emoten dauz munduko naigabetuen negar eta kezkak entzun ta eurai laguntza ta bake pozgarria emotearren.

### BEARTSUEN ALDE

Zenbat ezkonduen arteko eztabaida bigundu ete ditue abadeak! Zenbat gazteen gora bera larri baketu eta argitu, ordaiñik baga, eta isil-isillean! Gai-xoen miñik ume zurtzen eta txiroen bear ta larritasunak ebartzi ta atondu!

\* \* \*

### URDIRATASUNA

Oraintsu ondiño, Sikologo ta Sikiatra jakitun bik irratiz iñoen: Gure lana geroago ta aundia-go da. Lenengo ta bein geroago ta andra ta gizon geiago dira kezkaz eta larritasunez beteak. Oraingo bizitza-erea larriagoa dalako, bizitza arintasunez ta zorabioz betea, baiña beste aldetik len olako kezkak aurtorlekuan abadeak atonduten ebezelako eta guk baiño merkeago. Orain geienak autor-tza alde batera ilzirik guregana etorri bear baketuteko ta osatuteko.

\* \* \*

### ONURAGARRI

Abadearen lan au ez al da onurakorra erlejiñoari dagokio-nez eta gizontasunari dagokio-nez?

Or dozue abadeak gizadiari emoten dautson laguntzearen iragarte ta erakusgarri txiki bat!

**ZAR-GAZTE'k**

# BARANDIARAN'GO JOXEMIEL

## SAN MARTIN TXIKI

*Ba-da Ataun'en ipuin zar bat: San Martin Txiki'ren ipuiña.*

*Ipuin onek diñoanez, antziñako kristau santu onek ostu eutson bertokojentillari ainbat gauza ta tresnaren asmapena.*

*Gari-azia ostu ei eutson, bein, auzoko jentillari; eta olan sortuerazo ei eban geure arteko nekazaritza.*

*Burdin-zoldaketaren berri kendu ei eutson, beste bein; eta olan asi ei zan burdigintza, gurean.*

*Gaztain-orriari oarrez egoteko esan ei eutson, beste bein; eta gaztain orrien koxkaz oarturik, lortu ei eban lenengo zerrea.*

## PERUNEZAR'EKO APAIZ TXIKI

*Ba-da Ataun'en, onen sen eta asmotako beste gizon bat; bere erritarrak «Perunekar'eko apaiz txiki» esaten dau-tsoena. Aoz-aozko artu-emonak ei ebazan San Martin Txiki'k bere auzoko jentillakaz. Perunekar'eko apaiz txikiak olangorik ezin, eta areen illarri ta kobetako ondoko moko zarren bitartez diardu eurakaz.*

*Aurrera begira ta gerorako gauzak lortu ebazan Martin Txikik. Atzera begira, barriz, eta len euskaldunen zerzelangoak ikasi ebazan apaiz txikik.*

*Zelan...? Bere erriko artzain batek «Jentillarri» eritxon trikuarri edo dolmena erakutsi, ta an eortzita egozala antziñako jentillak esan eutson.*

*Bai...? Atxurra artu, ta atxurketan asi zan, bereala, Ataun'go abade txikia. Eta egia: giza-azur, arrizko tresna ta lurrezko zatiak ugari topau ebazan. 1917 urtea zan.*

## KOBETAN

*Amaika trikuarri ta koba-zulo aurkitu ta aztertu dauz, arrezkero, gure abadeak. Berak egin dauz ots andiko, munduko jakintsuen artean: Baltzola, Axlora, Ekain, Santimamiñe ta... koba-zuloen euskal izenak.*

*Eta zer esan ete dautsoe geure abade txikiari koba orreetan aurkitutako ainbat ondo-mokok? Ez garala euskaldunok iñundik etorritakoak... Berton sortuak garala...!*

*Noz...? Orain amalau milla urte, gitxienez.*

*Zelan, baiña...? Gizonezko iru gar-azur topau ebazan, bein, Urkiaga'ko koban: bat orain ogetabost milla urtekoa, ordun Europa'n bizi zan, Kromañoñ-giza itxurakoa; urrengoa, orain ogei milla urtekoa, erdi kromañoñ erdi euskaldun zana; eta irugarrena, orain amalau milla urtekoa, oraingo euskaldunen antz-antzekoa.*

*Europako beste lurraldetan galdu egin zan kromañoñ-enda ori. Eta emen, apur-apurka, oraingo euskaldunen itxurara antzaldatu zan.*

## ATX-MARGOZKI

*Kobetan jasotako arri ta azur batzuk landuta dagoz.*

*Naiko, ondo ta antzetsu landuta, gaiñera. Piztien irudi bitxi dira alango asko.*

*Baiña, koba orreetako arrigarririk arrigarriena, bertako margazkiak dira. Santimamiñe, Altxerri ta Ekain kobetako margazkiak dira miagarrienak. Zaldi, bisonte, artz ta auntzen irudiak dira aipagarrienak.*

*Gure arteko «museo» ospetsuenen margazki zarrenak orain bi milla urtekoak dira; eta gaur goizekoak, zeinbako edo erti-astraktukoak. «Neolitiko» (orain bost milla urte), garaian erabillen, barriz, geure aurreko euskaldunak zeinbako ertiera bici, bizkor eta azurtsu ori. Eta orain ogei milla urte baiño lenago asiak ziran, gauzak diran lez adierazten. Amaika margazki «realista» edo zeindun eder ageri da gure koba zar orreetan.*

## IPUIÑETAN

*Ainbat ipuin, elezar eta oitura bitxiarren barri be ikasi eban bere or-emengo ibillaldietan... Euren zepa ta apurre-ria, kobako lurra galbaietan lez, ondo eralgi, ta areen esangurak azaldu ebazan.*

*Orrela, agerrerazo ebazan Mari jainkesa, aren seme Atarrabi ta Mikelats, Olentzero, Gaueko, Basajaun, Lamiñak, eta...*

*Orrela, jaso ebazan kristautasuna emen noz eta zelan sartu zaneko ainbat zertzelada: V, VI, VII gizaldietan, Araba, Araoz, Udalatx... kobatan bizi zirala eremutar kristauak; Jentillen iturri ta leku santutan eginda dagozala ainbat ermita; ta abar.*

*Orrela, ikusi eban «Etxea» dala gure bititoki, lantegi, eliza, illarri, ta legediaren ama...*

## EUSKERA

*Ez dau euskaldunak, amalau milla urte oneetan, bere soin-itxurarik aldatu. Aldatu ete dau bere izkuntza?*

*Gure antziñako tresnen izenak: Alzkora, Alzturak, AIT Zur, Alzto, ta abar..., aitz edo arri-aroan egiñak dirala adierazoten dabe.*

*Zaldi, aari ta bei gorrien ipuiñak, bestalde, pizti orreek margoztuta dagozan kobai buruz diardue, geienetan; koba orreetan dagozala gorderik, diñoe olango ipuiñak.*

*Gure bertsolaritza, ta azti-itxurazko ainbat kanta Zarrek be orduko kutsu agiria dauke.*

*Ziur-ziur dago, beraz, arri-aroa izkuntza dala geure euskera; eta orain amalau milla urteko len euskaldun areek sortua, nunbait!*

\* \* \*

*San Martin Txiki, Perunekar'eko apaiz txiki... Giza txiki, giza bitxi... Ataungo aztizko giza bitxiok azaldu daukue euskaldunen izkutu-mizkutuak.*

**URKIOLA'K**

# *OLENTZERO ETA DONIANE JAIK*

**Gaur jai egun bi oneik kristiñautzat doguz. Jatorriz, ostera, ez dira orrela; nork daki nor zaan olentzero?**

**Ezin dogu ukatu jai egun onein garrantzia. Batzuk urtearen erdian ospatzen dira; besteak, azkenaldian. Beraz, udaburuan eta neguburuan. Eta emendik gure ondorioa: eguzkiaren omenezko jaiak dira.**

**Jesukristo-aurreko dokumentoetan agertzen danez, illargi bete egunetan euskaldunak jai aundiak ospatzen ebezan. Bere ornezez dantza eta dantzan ibiltzen ei ziran etxeko atarian.**

**Udaburu eta neguburuko jaietan, ostera, suak egiten dabez. Oneik eguzkiaren ornezezkoak dira.**

**Eta emendik beste ondorio au: eguzkiak eta suak, aintziñako euskaldunentzat, zeri-kusi berezia dabe.**

**Eguzkia bizien argia eta poza da.**

**Onela arratiarrak: «Gaur poztu nauzu; biar be etorri, mezedez».**

**Eta suak be eguzkiaren antzeko indarra dau: berari esker gaizkiñak ezin dabe kalterik egin, ez etxean, ez soloetan, ez abeltegian.**

**Onela ikusirik, geroago aitatu doguzan oitura batzuk errezago ulertuko doguz.**

**Gaur egun, oraindik, Doniane jaiak oso ezagunak dira eta Euskalerra osoan egiten dira.**

**Zaarrak eta gazteak, danak, inguratzen dabe su-tokia. Auzo inguruetakoko sugarri eta oial zaarak pillatu ostean, su aundiak egiten dabez. Sugarra dagoan bitartean, ume zaratak, abestiak, dantza-korroak eta abar izaten dira. Ostean, banan-banan su gaiñetik saltoka ibiltzen dira. Onela egin ezker, esaten dabenez, urte barruan ez da gaisorik izaten.**

**Abereekaz eta soloetan be bardin egiten dabe: abereak su gaiñetik edo ingurutik igaro ostean, autsa soloetatik benatzen dabe. Onela izpiritu gaizkiñak alde egiten ei dabe.**

**Neguburuko jaietan be jokabide bardiñak ziran euskaldunen artean. Egia esan, Araba'ko erri batzutan izan ezik, gaur neguburuko suak oso erri gitxitan egiten dabez : Geienbaten su oneik etxe barruan egiten dira. Baserrietan enbor aundi bat erretzen da. Su onek izen ezbardiñak daroaz: «Enbor sua», «Gabon subilla», «Gabon zuzia» eta abar.**

**Erri batzutan Gabon Zaarrak igaro arte iraun arazten dautsoe su oni. Ostean, etxeko atarian eta kortan jartzen dabe, autsak soloetan bananduz.**

**JOSU LEGARRETA**



# OLENTZERO

Aurreko irakurgaiari «Olentzero»'k jai egun batzuk adierazoten dauskuzala esan dogu. Jai egun orreitatik pertsonaje bat sortuko da. Baiña bere nor-tasunaz gitxi dakigu. Izena beca be Euskalerriko alde batzutan ezagutu be ez da egiten izan. Azken aldi onetan zabalkunde berezi bat izan dau eta ezagun jaku.

Gaur Olentzero Gabonetako pertsonaje bat dogu. Gabon jaiak eurak be beste sentzu bat dabe. Jatorriz Eguzkiaren omenezko jaiak izan arren, gaur Kristoren jaiotza ospatzen dogu.

Baiña... Ihar da gure Olentzero? Zer da? Noizkoa da? Zelangoa da? Zer adierazoten dauku? Goazen zatika aztertzen.

Naiz eta izen ezagunena «Olentzero» izan, pertsonaje onek izen bat baiño geiago dan: Olentzero, Olentzaro, Onentzaro, Orentzaro, Olesaro, eta abar. Dana dala, bat zein beste erabilili danok ulertzen dogu gauza bardiña. Izatez, ez da Euskalerrikoa bakarrik be. Beste larterri batzutan he ba dira antzerakoak. Adibidez, or dogu «Noel» Jauna : bakezale, barriemalle.

Zer edo zelangoa da? Batzumentzat ikazkin utsa da; mendian bizi da. Onela diño abes-tiak:

*«Olent.:ero joare zaigu  
lanera mendira...»*

Beste batzumentzat gizon ikacagarria he ha da: bere begiak gorri-gorriak dira. Irugarrenentzat goseti ase eziña da, jatun amaigabea. Beste askorentzat bildurgarria: goizaldeetan edozein tximinitik beera jatsitzen ei da. Tximinia edo sukaldea zikin aurkitu ezkeru, etxckoei kalte aundiak egiten ei dautsez.

Janzkeran be ez dago bardintasunik: erri bakoitzak bere erara jantzen dau pertsonaje au. Alan be, danok gatoz bat onetan: Gabon Jaietako pertsonajc berezi bat dala, mendian bizi dala eta Jesus L mearen Jaiotzaren barri emotera jatsitzen dala errira.

Baiña, barri au gora-beera, izaki au gazteak euren jolesetarako be erabiltzen dabe. Panpin aundi bat egiñaz, etxerik etxe diru edo janari eske abes-tutzen ibiltzen dira. Ostein, sua emongo dautsoe. Erri batzutan panpiñaren orde, gazte bat erabiltzen dabe Olentzero jantzi-ta. Ikatzez baltzitu ostein, lagunak lepoan artuta eroaten dabe.

Eguzkia naiz Kristo Jaungoikotzak artu; Gabonak jai egunak doguz : urte barruko jai garran tzitsuenak.

Ikusten dogunez, udaburuko eta neguburuko euskaldunen jocabideak bardiñak ziran, elburu bardiña eben. Bear bada su oneitan ezbardintasun bat ikusten dogu : gaur udaburuko suak egun baten bakarrik egiten dira ; neguburuan, ostera, Gabon Zaarrak igaro arte. Zer pentsatu onetaz? Ez dakigu. Zinttasunez auxe bakarrik esangodogu : eguzkiaren omenez egiten ebezala.

Su onen garrantzia ulertze-ko, euskaldunen artean beste pentsaera bat be ba-dogu. Euskaldunarentzat laratza gizonen testigu eta epaile da. Neguburuko jaietan sendia «Gabon zuzi» onen inguruan batzartzen da. Laratzak danen barria daki eta epaile biurtzen da. Onetan eguzkiaren beraren birtute bardiña dan: eguzkia «jaungoikoa-ren begia» dala esan ba'dogu, laratzaz be bardin esan bear dogu. Biak dakie gizonaren barria eta biak doguz epaile.

Sua eta eguzkia, gizonaren poz eta argi.

**Josu LEGARRETA**

---

---

# LEMONIZ ARGITAN...?

*Basorda, kantauri itxas ertca...  
Hillaak urteetan ixilik  
gure bizitzan bici izan zara  
baset.re., inguraturik.*

*Itxas ertz maitagarria. ^üran.  
\_lrrkait.,ak... gordelekua...  
gurbiziti or/erak magalean...  
toki !catrina /aldia.*

*Babes ederrena zirudizuu,  
gizonak maitatu ala,  
zer egon zure barne ingu ruan,  
.zoramena eriola.'*

*\_lrrkaitzak, arriak ta zuloak  
uren, gaiiuez, ingurua,  
balira indar berezia zeunkan  
itxas cabal aüiakua.*

*I'antauri eriza, beti, izan zara  
itxaso ur odoltsua,  
aize gogorrek astindu zaitu,  
sarri, orio ta obra.*

*Basorda, arri ta ur gogorra,  
ekaitzen bildur gabea,  
oiieztarriak zure erraietan  
izanik eriotzea.*

*Denporalari eutsi deutzazu,  
u<sup>g</sup>ari aipegi emon,  
gaurdaüua, zutik, dirauzu  
gune itxas ertzeko Sanson.*

*Itxasoa, sarri, ikusi dozue  
oiireztarriz, trumoiz dardaraz,  
ezpataz zaurituta bezala  
odol baltzetan iltzeaz.*

*Basorda, magal ortan ebiltzan  
bildots onak belarretan,  
amets gaiztorik gabe, pozetan,  
artzaiñak goiz arratsetan.*

*Gizonak jun dira Basordara,  
kantauri bazter maitera,  
bakearen sabe/ nausi ortan  
eztabaida sortutera....?*

*,Vuklear indar eskutuzkoa  
jarri nai dabe Basordan:  
jakituria ez da ziurra,  
gizon ardurak soberan.*

*Argia nai dut, bizia nai dut,  
arrisku aundi erdian,  
ziurtasunge, nola, jokatu  
eriotzako atian...?*

*Euzko semeen biziak dei dagi  
itxaso zabal aurrian,  
gizonak, entzun arrisku deia.  
Bizkaia il ez daitian...!*

**PAULIN**

# EUSKERAZALEAK

## LEN DIMA'N

Euskereak Dima'n egin dauan atzerakuntza, negargarria dogu.  
Bertatik aldendu nintzala, ogei ta sei bat urte dira.

Orduan danak ekien Aitor zarrarengandik etorkien berbetea, dana zan euskerea; uts eta putz batzuk zirala, erriko euskerea.

## GAUR EGUN

Gaur egun, eskolako neska-mutikoen artean ez da euskerearen izpirik be entzuten.  
Dakienak ba-dira, erderearen eztenak baiña, zulotu ta ustuten dau euskerearen bularra.  
Ats-odiak zarratzen diardu.

Erderaz da dana, AITA ta AMA dira euskeraz.

• \*

## ZAMAKOLA'REN PLAZAN

Zamakola'ren enparantza-inguru-minguruetan bizi diran umeai euskerarik dakien itanduten ba-dautsezu, bai, ba-dakigu erantzungo dautzue.

Baiña BADAKIT'etik aurrera ezer gitxi!

\* \* \*

## IBARRA'N

Eta Ibarra... ?

Auzotegi onetan be, ba, eskola bako egunetan, udan, amar-amabi ume jostatzen goizetik gabera.

Txikiak bere pozak eta asarreak amari erderaz, amak euskeraz dagio.

Eta batek erdereari eta basteak euskereari ekin arren, bakez amaitzen dabe eguna, gibelean min barik.

Biar, etzi ta urrengoan be, arigintza egiteko, lengo matazatik.

Noiz arte onelan, Dima'ko amak?

\* \* \*

## ZORITXARREKO EZ

Orain arte onetan, eskola-umeak aitatu dodaz geienbat; eskolatik antxin baten etxeratu ziran neskatiletzat be, zer-esanik ba-dogu, beste baterako.

Goietatik, eta beko baserritarra be bai, eleizará datorrenean euskeraz mintzatuko da baiña enparantza-inguruan bizi diran zenbait amama erdeldunak doguz.

Gure izkuntza ta Erriarentzat, ez gaitean zoritxarreko izan!


LANDAJUELA'tar A.'k

## IZKI - NASTEAREN ERANTZUNA

E	A	R	A	L	A	S	T	Z	E	D
				T	S	L		UB		A
	Z	I	L	L	I	G	S	I	M	I
A	R	S	A	R	R	A	T	E	T	J
L	R			Z	E	B	MA	X	Z	I
		P	J	A	N	E	B	I		U
			M		R		AS	X	A	A
O	G		O	L	O	I	I	S	R	A
D	\	A	L	P			L	L	Z	D
I	L	L	T	S	K	Z	E	G	A	S
										U

# ZAR

Colón de Larretégui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1



## 70 urte Bizkaiari laguntzen



**CAJA DE AHORROS**   
**MUNICIPAL DE BILBAO**  
ONDO ERANTZUTEN DAU